

52. UDAKO IKASTA ROAK 2024

ueu.eus



Hezkuntza soziolinguistikoa: esperientzien partekatzea eta aurrera begirakoa

Esperientziak nerabeekin I

Maier Ugartemendia
Ugartemendia



ZER DA UEMA?

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea

- 1991tik udalerrri euskaldunetatik Euskal Herri euskaldun baten alde lanean ari den mankomunitatea.
- Gaur egun 111 udalerrri euskaldun



MANKOMUNITATEAN EGOTEKO BALDINTZAK

- Euskaldunen indizea %70 edo gorakoa izatea
- Udalak UEMAn sartzea onartzea


GURE EGITEKOA

1. Udalerrri euskaldunen erabateko hizkuntza normalizazioa lortzea
2. Herritarrak ahalduntzea
3. Udalerrri euskaldunek osatzen duten euskararen arnagunea saretu eta zaintzea


HEDATU HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ahalduntzea

UEMAren ildo nagusietako bat da herritarrak ahalduntzea eta sentsibilizatzea. Umeak eta gaztetxoak ere ahaldundu eta sentsibilizatu nahi ditugu: eskola funtsezkoa da bide horretan.



HEZKUNTZA SOZIOLINGUISTIKOAREN EGOERA HEZKUNTZA SISTEMAN



Kokapena



Xabi Aizpurua (2015):

DBH zikloan soziolinguistikak zuen lekuari buruz ikerketa egin zuen UEMAK.


Ordurako ikastetxeetatik kezka jaso genuen UEMAn, ikasleen hizkuntza bilakaera zela eta.

- Ikasleek inertziaz daukate euskararen aldeko jarrera
- Irakaslegoen artean ez daude eduki soziolinguistikoak eta hizkuntza normalkuntza ardatz nagusien artean
- DBHko bigarren zikloko ikasle gehienek ez dituzte soziolinguistikaren oinarrizko edukiak menderatzen

=> Hizkuntza ekologiaren eta arnasmuneen teoriatik abiatuta, ikasgeletan lantzeko material pedagogikoa sortu zuen UEMAK

hezkuntza arautuan

- Unitate didaktikoak
- Formazio espezifikoak
- HH, LH, BH



hezkuntza ez-arautuan

- Hezitzaileentzat formazioa
- Salto! udalekuak
- Euskarriak

HEDATU

IRAKASLE / HEZITZAILEAK

Formazioak:

- Soziolinguistika
- Hizkuntza estrategiak
- Hedatu gure eskolan

Euskara eta kulturartekotasuna

Hizkuntza harrera

Hizkuntza proiektuak

IKASLEAK

Unitate didaktikoak:

- HHtik DBHra bitarte

Tailer osagarriak:

- Ispiluari begira (LH2)
- Bagoaz (LH6)
- Bixitailerra (DBH2)
- Batxitailerra (BATX 2)

Patioetako neurketa

GURASOAK


Gurasoentzat saioak:

- Gurasoen sentsibilizazio saioak
- Hartzailearen arabera moldatzen da.
- Ispiluari Begira

Euskara eta kulturartekotasuna

- Eskuorriak
- Guraso bilerak
- Guraso elkarteetako hizkuntza irizpideak

Zer ikasitza duzue?



IKASLEEN PERTZEPZIOA

Hiru funtzio nagusi unitate didaktikoek: sentsibilizazioa, ikasleekin hausnarketa egitea eta soziolinguistikako kontzeptuak lantzea
"Ikasleak eduki batzuekin harrিতa geratu ziren eta arnaguneak kolokan jartzeko arriskuaz jabetu ziren."

Ikasleek saioetan: Saioen baliagarritasuna eta landutako edukia baloratzen dituzte bereziki:

"Tailer hauek baliagarriak dira euskara bermatzeko"

"Euskararen erabilera kontuan izango dut hurrengo batean norbaitek erdaraz egitean"

"Nire eskubideak gehiago bultzatuko ditut"

"Beharrezkoa iruditzen zait gazteon kontzientzia lantzeko"

"Euskararen egoera ulertu eta garrantzia handiagoa emango diot"

"Erdaraz zenbat kultura kontsumitzen dugun ohartu naiz".

"Kontzienteagoak izaten laguntzen du euskararen eta hizkuntza minoritarioen inguruan"

"Euskararen egoera azaltzea oso interesgarria iruditu zait",

"Horrelakoak gehiagotan edukitzea gustatuko litzaidake".




IRAKASLEEN PERTZEPZIOA

Formazio saioen balorazioa:

“Kontzientziazioa lantzeaz gain, estrategia ezberdinak eman zizkigun gure ikasleen artean euskararen inguruan aritzeko eta gure artean balorazio positiboa izan zuen”

“Eskolan falta zaiguna da formazio-saioan landutakoa gero eskolan sistematizatzea”

“Irakasleekin urtero egin beharko genuke formazioren bat, irakasle kontzientziatuek eta formatuek lan handia egin baitezakete geletan”.



“Euskara Batzordetik lan berezia egin genuen mailaka eta zikloka unitate bakoitzeko jarduera batzuk behintzat landu zitzaizen (gure ustez jarduera interesgarrienak izan zitezkeenak hautatzen). Halere, lan-karga eta denbora eza argudiotzat hartuz, batzordeko inpresioa izan da tutoreek ez diela behar bezalako garrantzirik eman, ez eta nahikoa denbora eskaini.”

Gakoa: Irakasle kontzientziatuak eta sentsibilizatuak izatea egunez egun izan dezaketen eragina handia izan daitekeelako.

HUTSUNE ETA ERRONKAK

Proiektuaren ahulguneak: Sistematizazioa eta proiektua modu integralean ulertzea.

Plangintza bateratuak:


“Argi suma daiteke irakasleek eta ikastetxeek bakarrik ezin diotela erantzun egoeraren konplexutasunik eratortzen diren behar guztiei. Baina unibertsitateak, hezkuntzako eragileek eta gizarte antolamenduko erakundeek jositako sareak bidea eman diezaioke egitasmo bateratuak zentzuz eta indartsu abiarazteko asmoari. Harremanen ekosistema aberastuz gero, estrategiak arnasberrituko dira, eta egoerari baliabide eraginkorrek emango zaio erantzuna” (Aizpurua, 2015).

Udalerri euskaldunen bilakaera: Udalerri euskaldunetan euskararen egoera beste gune batzuetan baino sendoagoa den arren, gero eta ikasle gehiagok du euskara bigarren hizkuntza

Erraztasun erlatiboa: “Nagusitasunezko hiztunak behar ditugu” (Iurrebaso, 2023), eta gainditutzat eman izan diren zenbait kontutan arreta jarri; adibidez, ahozkotasuna.



HUTSUNE ETA ERRONKAK



Tokikako planak: Erantzunek ezin dute berdinak izan arnasmune batean eta erdara nagusi den udalerrri euskaldun batean.

Euskara eta kulturartekotasuna: harreraren auzia heldu beharrekoa da, betiere ikasleak eta haien familiak erdigunean jarriz, eta gaia ikasgelara eramanez.

Hezkuntza komunitate osoan eragiteko beharra: Horretarako beharrezkoa da ikasleek udalerrri euskaldunetarako eta arnasmunetarako berariaz sortutako eduki soziolinguistikoa lantzea ikastetxeetan, baina era berean, ezinbestekoa izango da irakasleek eta hezitzaileek ere formazio soziolinguistiko egokia eta eguneratua izatea udalerrri euskaldunetako erronkei erantzuten jakiteko. Gainera, ezinbestekoa izango da erronka horiei ikasleen familiekin batera erantzutea.



DENON ARTEAN EGINGO DUGU!



HARREMANETARAKO:

Maier Ugartemendia Ugartemendia
mugartemendia@uema.eus
943.816.699

ESKERRIK ASKO!

